

BALIO PROPOSAMENA

Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Gaur egun, mugikorren beharra handia da, eguneroko bizitzan laguntzen baitigu. Mugikor askoren arazo nagusia bateria da, eta horrek kargagailu eramangarri bat izatea eskatzen du. Gure produktuan, kargagailu hori zorroarekin integratuta dago, pisu gehigarririk hartu beharrik ez izateko.

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gure produktuak ez dio bezeroari pisua gehitzen, eta gainera, energia berriztagarria erabiltzen du, kargagailu arruntetan ez bezala. Hori dela eta, erosotasuna eta gure planetaren zaintza bilatzen dutenentzat, zorro egokiena da.

Bezeroek gure enpresa, produktu edo zerbitzua aukeratzearen arrazoia da, eta lehiakideengandik bereizten gaituena.

Kuantitatiboa eta kualitatiboa: Prezioa, salmenten arabera erregulatuko da, azkenean energia berriztagarria eskaintzen duen produktu bat delako. Produktua merkatura iristen denean, hasieran garestiagoa izango da, inbertitutako dirua berreskuratu ahal izateko. Hala ere, gure produktuak fama hartzen duenean, prezioak jaitsiko ditugu, denentzat eskuragarri egon dadin.

-Berritasuna: Gaur egun, dagoeneko energia berriztagarria erabiltzen duten integratutako kargagailua duten telefono-zorroen prototipoak asko dira, hala ere oraindik ez dira merkatura iritsi. Gure erabiltzaileari teknologia jasangarri bat eskaintzen dio eguneroko objektu batean.

-Prestazioak: Telefonoa egunean zehar kargatzeko aukera ematen du, eta energia biltegitatzeko gaitasuna ere badu.

-Pertsonalizazioa: Diseinu desberdinak eskaintzen dira (koloreak, testurak, irudiak...) eta baita funtzio osagarriak ere, adibidez, energia-mailaren adierazlea.

-Lana erraztea: Telefonoa beti erabilgarri izateko aukera eskaintzen du, bereziki lan egiteko telefonoa erabiltzen dutenentzat, bidaian dabilzanentzat edo kanpoan denbora asko pasatzen dutenentzat.

-Diseinua: Diseinu arina, moderno eta erakargarria du.

-Marka / Estatusa: Jasangarritasunarekiko konpromisoa duten erabiltzaileentzat estilo-adierazle bihurtzen da, ingurumenarekiko kontzientzia, berrikuntza eta diseinua uztartuz.

-Prezioa: Hasieran prezioa altua izango da, baina irabazi onak lortzen ditugunean, prezioak jaitsi egingo dira.

-Arriskuen murrizketa: Bateria agortzearen arriskua murrizten du, eta horrek balio handia du. Eguzki-karga pasiboa denez, ez dago gainkarga arriskurik, kontrolatutako zirkuituekin.

-Eskuragarritasuna: Online eta denda fisikoetan eskuragarri egongo da, hainbat modelo eta tamainatan (iPhone, Samsung, etab.). Horrez gain, bidalketa azkarra eta ordainketa erraztasunak eskainiko dira.

-Erabilerraztasuna: Bezeroek beraien mugikor markaren arabera kable txiki bat konektatu beharko dute kargatzeko zuloan. Mugikorrean jarrita egongo da eta denbora guztian kargatzen joango da, beraz, bezeroek lasai asko egon ahalko dute mugikorra erabiltzen.